

# Atabal

SEPTEMBRE-DECEMBRE
IRAILA-ABENDUA
2018

Scène de Musiques Actuelles de Biarritz
Biarritzeko Gaurko Musiken Eszena

# Le mot de la Présidente Lehendakariaren hitza

Si on remonte dans l'histoire, les premiers lieux de musiques actuelles ont été créés à la fin des années 70, début des années 80. Des projets militants d'éducation populaire, visant la découverte d'esthétiques et de démarches artistiques et culturelles peu ou pas considérés à l'époque, soutenus ensuite par les collectivités locales, puis par l'Etat avec ce label national SMAC (Scènes de Musiques Actuelles).
À l'image du Florida à Agen, ancien music-hall transformé en salle de concert dans les années 90, ce sont plus de 80 SMAC aujourd'hui qui défendent une diversité sur tout le territoire français.
Et puisqu'on veut vous annoncer une superbe nouvelle ici... Atabal devrait obtenir officiellement ce label d'État cet automne...
C'est la direction souhaitée et sur laquelle nous avons travaillé activement depuis plusieurs années en développant un projet artistique étoffé, riche, une démarche territoriale et une volonté de maillage. On espère que vous appréciez de lire cette nouveauté de rentrée autant que nous à vous le dire !

Sachez que le projet Atabal s'est développé fortement depuis 5 ans et remplit totalement les missions d'une SMAC. Missions de diffusion dans et hors de nos murs, de création ou de coordination avec Biarritz En Eté, d'accompagnement des pratiques amateurs et professionnelles, de transmission des musiques actuelles avec le succès grandissant de notre école de musique Rock Eskola.
Mais aussi un grand nombre d'actions culturelles à destination des scolaires et publics empêchés sur l'ensemble du territoire Pays Basque. Tous les ingrédients sont là, reste à acquérir la reconnaissance du travail de toute une équipe autour d'un projet solide soutenu par son conseil d'administration et par la ville de Biarritz depuis sa création. Atabal comme nos partenaires sur le territoire profiteront de cette nouvelle dynamique, appuyée, reconnue. Le projet continuera de grandir, de fédérer, de co-construire un écosystème culturel avec les autres structures et associations du territoire.
To be continued avec vous tous !!!

Sylvie Claracq
Présidente d'Atabal
Déléguée à la Jeunesse et à la Vie Scolaire de Biarritz

Historian gibelera egiten badugu, gaur egungo musiken guneak 1970eko hamarkada bukaeran eta 1980ko hamarkada hastapenean sortu ziren. Herri hezkuntzako proiektuak ziren eta garaian kontuan hartzen ez ziren estetika eta desmartxa artistiko eta kulturalak ezagutarazteko xedea zuten.
Gerora, tokiko elkargoek sostengatu zituzten, eta, ondotik, Frantziako estatuak berak, SMAC (Scènes de Musiques Actuelles - Gaur egungo musiken eszena) izeneko estatu mailako labelarekin.
Agen hiriko Florida izeneko music hall zaharra 1990eko hamarkadan kontzertu aretoa bilakatu zen bezala, gaur egun, Frantziako lurralde osoan, aniztasunaren isla eta zaindari diren 80 SMAC baino gehiago daude.
Eta, hala, orain, berri on bat iragarri nahi dizuegu: udazken honetan, Atabalek SMAC labela jasoko du ofizialki!
Hori da gure bidea. Badu urteak horren alde aktiboki lanean ari garela. Proiektu artistiko mamitsua, joria eta aberatsa garatu dugu. Lurralde mailako egitasmoa da eta sarea ehuntzeko xedearekin ari gara. Berri hori atsegin handiz hartuko duzuela espero dugu. Gu arras pozik gaude!
Azken 5 urteetan, Atabaleko proiektua azkarki garatu da. Egun, osoki SMAC baten eginkizuna betetzen du: areto barnean ala kanpoan musika hedatzeko eginkizuna, Biarritz En Été festibalarekin sorkuntzan eta elkarlanean aritzeko betekizuna, praktika amaturren eta profesionalen laguntzeko misioa, gaur egungo musiken transmisioa bermatzeko zeregina (Rock Eskolaren arrakasta handiari esker).
Gainera, ipar Euskal Herri osoko ikasleei eta elbarrituei zuzendutako kultur ekintza anitz eskaintzen ditugu. Osagai guztiak hor ditugu. Biarritzeko Herriko Etxeak eta
Atabaleko administrazio kontseiluak hasieratik proiektu hau sostengatu dute.
SMAC labela Atabaleko langile taldearen lanaren onarpena eta ezagupena da. Atabal eta lurraldeko gure partaideak dinamika berri honetaz baliatuko dira.
Handitzen, jendea eta egiturak elkarretaratzen eta lurraldeko beste egiturekin eta elkarteekin ekosistema kultur bat eraikitzen jarraituko dugu.
Jarraituko dugu, zuekin batera!

Sylvie Claracq
Atabaleko lehendakaria
Biarritzeko Eskolako bizia eta Gazteria arduraduna


*Responsable de la publication* **François Maton** *Argitalpenaren arduraduna*
*Rédaction - Communication* **Corinne Thion** *Idazketa - Komunikazioa*
*Infographie* **Malvina Hubert** *Infografia*
*Traduction* **Txomin Urriza Luro** *Itzulpena*
*Régie Publicitaire* **Brice Morin 06 04 59 85 07** *Publizitatea*
*Impression* **www.imprimerie-ibt.com** *Inprimatzea*
*Crédits Photos* **T. Loustauneau - A. Cazenave - D. Pernaud** *Argazkiak*
*Visuel Couverture* **Lydie Arickx** *Azaleko irudia*

**Atabal** 37, Allée du Moura - 64200 Biarritz - 37 Moura karrika
05 59 41 73 20 – www.atabal-biarritz.fr

## SAMEDI 08 SEPTEMBRE 14:00-17:00 IRAILAK 08 LARUNBATA



# INSCRIPTIONS - IZEN EMATEAK

La Rock Eskola, lieu d'apprentissage d'Atabal, vous ouvre ses portes. Quelque soit votre niveau, débutant ou confirmé, vous trouverez le cours qui vous conviendra. A partir d'un répertoire de musiques actuelles, vous jouerez de votre instrument dès le premier jour en cours collectif (3 personnes maxi) et cette année les MC en herbe pourront découvrir l'univers du Hip Hop. Rock Eskolak, Atabaleko musika irakaskuntza lekuak, ateak zabaltzen ditu. Zuen maila edozein izanik ere (hasiberria ala aditua), komeni zaizuen klasea aurkituko duzue! Klase kolektiboetan (gehienez 3 ikasle) eta lehen egunetik musika tresnak joz, gaur egungo musikako kantuak landuko dituzue. Aurten, MC kantarigaiek hip-hop kulturaren mundua deskubritzen ahalko dute.

*Les professeurs seront présents pour répondre à toutes vos questions (Il n'y a pas de pré-inscriptions). Zuen galdera guztiei erantzuteko, irakasleak hor izanen dira. (Egun horren aurretik ez da izen ematerik onartzen).*

**DISCIPLINES ENSEIGNÉES IRAKASTEN DIREN MUSIKA TRESNAK**
**#Nouveauté Berritasuna#** Hip Hop Eskola **Et toujours** Éveil Musical (3-5 ans) - Initiation musicale (6-9 ans) - Guitare - Batterie - Chant - Chorale - Clavier - Basse - DJ/MAO Musique Électronique (+10 ans / Adultes) Lehen hurbiltzea (3-5 urte) - Lehen Irakaspenak (6-9 urte) - Gitarra - Bateria - Kantua - Abesbatza - Teklak - Baxua - DJ/OLM Musika Elektronikoa (+10 urte / Helduak)

+ d'infos en fin de plaquette + liburuxka bukaeran xehetasun gehiago



# VENDREDI 21 SEPTEMBRE 20:00 IRAILAK 21 OSTIRALA

# MO.RE *MOMENT RARE #6*
# CHLOE LIVE + STANDART

Présenté par **ATABAL**, **LE FESTIN NU**, **FRANCK CAZENAVE**-ek aurkezturik







***Suite au succès des événements MO.RE au Festin Nu, nous avons imaginé un temps de rencontres originales, sorte de "mini festival": un moment rare entre musique, littérature et art. Cet événement souhaite trouver sa propre vitalité, proposer une parenthèse, un temps suspendu, telle la lecture d'un ouvrage sur le banc d'un jardin.***

## CHLOÉ LIVE

La DJ et productrice techno parisienne a emmené toute une génération sur son terrain de jeu de musiques électroniques. **«Endless Revisions»** son dernier album est le fruit de rencontres avec Rhys Chatham, figure new yorkaise, Ben Shemie de Suuns ou Alain Chamfort qui donnent toute la richesse à cet album sophistiqué et gracieux. Connue pour ses musiques imagées et ses images musicales, CHLOÉ dévoilera pour la toute 1ère fois à Atabal son nouveau live.

+ Warm up & After STANDART
+ Exposition éphémère
DUNE LUNEL et FRANCK CAZENAVE

***Festin NU liburu dendako MO.RE gertakarien arrakastaren ondorioz, topaketa memento bereziekin segitzea erabaki dugu, hau da, musikaren, literaturaren eta artearen arteko hitzordu bat antolatzea. Gertakari horrek bizitasunez betea izateko xedea du. Parentesia bat, geldialdi bat izan gogo du; lorategi batean, aulki gainean, liburu bat irakurtzean bezala.***

## CHLOÉ LIVE

Pariseko DJak eta tekno ekoizleak belaunaldi oso bat bereganatu eta musika elektronikoaren haren eremura ekarri du. **«Endless Revisions»** diskoa artista anitzekin elkartu izanaren emaitza da: New Yorkeko figura den Rhys Chathamekin, Suuns taldeko Ben Shemierekin eta disko sofistikatu eta dotore hau aberastu duen Alain Chamfortekin. Musika irudikatua eta irudi musikalak sortzeagatik ezaguna den DJa Atabalen ariko da, lehen aldiz.

+ Warm up & After STANDART
+ DUNE LUNELen eta FRANCK CAZENAVEren erakusketa iragankorra

ELEKTRO

*James Holden*
*Ellen Allien*

16€ / 13€ (adh-kide) en loc-aurretik
19€ / 16€ (adh-kide) sur place-bertan
PASS Irailak 21&22 Septembre 20€

Librairie Le Festin Nu

©Alexandre Guirkinger

## SAMEDI 22 SEPTEMBRE 18:00 IRAILAK 22 LARUNBATA

# MO.RE *MOMENT RARE #6*
# CATASTROPHE + LUMI + GRATUIT

Présenté par **ATABAL**, **LE FESTIN NU**, **FRANCK CAZENAVE**-ek aurkezturik




### CATASTROPHE
Kaléidoscope de genres musicaux, le collectif partage le même goût pour l'innovation que Kamasi Washington et Aquaserge, ou celui pour l'improvisation et l'expérimentation formelle qui se retrouve chez Kendrick Lamar. Soutenu pour Etienne Daho, le groupe entre dans la lignée de l'avant-garde française.

### LUMI
La modernité des machines et les paroles déclamées dans une langue aussi vieille que nos origines, se portent, s'accompagnent, délivrant une incantation.

### GRATUIT
Pour son 4e album, ses synthés habituels de côté, Antoine Bellanger «GRATUIT» a préféré le tuba et le live code. Ainsi armé, il imagine une mise en scène simple et minimale, amorce de ce concert/performance.

\+ Rencontre
**BLANDINE RINKEL 11h00 LIBRAIRIE LE FESTIN NU**

### CATASTROPHE
CATASTROPHE kolektiboa musika estiloen kaleidoskopio gisako bat da. Kamasi Washington eta Aquaserge taldeek bezala, berrikuntza atsegin du. Kendrick Lamar artistaren hip-hop sozialean entzun daitezkeen inprobisazioa eta esperimentazioa gustatzen zaizkio ere. Frantziako abangoardiako musikan kokatzen da.

### LUMI
Gu osoki xarmatzeko, Lumi taldeak makinen modernitatea eta gure jatorria bezain zaharrak diren hizkuntzan abestutako hitzak uztartzen ditu.

### GRATUIT
Laugarren diskoan, usaiako sintetizadoreak bazter utzi eta tuba instrumentua eta live coding teknika erabili nahi izan ditu. Antoinek taula zuzendaritza sinplea eta minimalista irudikatu du, kontzertu-performantziaren abiapuntua dena.

\+ Topaketa
**BLANDINE RINKEL, 11:00etan, LE FESTIN NU LIBURU DENDAN**

POP

***- VALLON DES FOURGERES - 52-56 Av Maréchal Foch 64200 Biarritz -***

♥♥♥
*Flavien Berger*
*Forever Pavot*

10€ / 7€ (adh-kide) en loc-aurretik
13€ / 10€ (adh-kide) sur place-bertan
PASS Irailak 21&22 Septembre 20€

Librairie
Le Festin Nu

©François Fleury

JEUDI 27 SEPTEMBRE 20:00 IRAILAK 27 OSTEGUNA

# CAMPULSATIONS 2018
# JOSMAN + ISHA + 8ESSE

Présenté par **ATABAL**, **LE MICROSCOPE**, **LE CROUS**-ek aurkezturik





## JOSMAN
JOSMAN, rappeur et producteur français, se fait connaître du public en 2015 avec un 1er EP «Échecs Positifs» et sa mixtape «Matrix». Loin de se conformer, le rappeur construit son chemin dans un univers original. 2018 est l'année de son 1er album dans lequel il manie avec aisance la transition entre rap énervé et chant.

## ISHA
Il a des airs de rookie mais balade son ombre depuis longtemps! ISHA crache le feu dans son EP «La Vie Augmente», et réussit la rencontre du texte qui parle vrai et de la punchline qui cogne !

## 8ESSE
*8ESSE est lauréat régional 2018 du tremplin étudiant Musiques de R.U. organisé par le Crous de Bordeaux-Aquitaine.*
Les 6 rappeurs écrivent et produisent des morceaux d'influences diverses, s'inspirant du monde, s'éloignant parfois un peu du rap.

## JOSMAN
JOSMAN frantses rap kantaria eta ekoizlea da. 2015ean, «Échecs Positifs» lehen EParekin eta «Matrix» mixtapearekin, bere musika jendearengana iritsi zen. Rap kantariak bere bidea marrazten jarraitzen du. Aurten argitaratu duen lehen diskoan, rap errabiatsuaren eta kantuaren artean ibiltzen da, batetik bestera errazki pasatuz.

## ISHA
Hasiberri baten itxura du, baina, badu aspaldi rap harrobian ari dela! «La Vie Augmente» lehen EPan, ISHAri ahotik sua dario. Egia osoa dioten hitzak eta punchline gogorrak uztartzea kausitzen du!

## 8ESSE
*Bordele-Akitaniako Crous egiturak antolatu Musiques de R.U. ikasle lehiaketako 2018ko eskualdeko irabazlea da 8esse.*
6 rap kantariek eragin anitzeko kantuak idazten eta ekoizten dituzte. Mundua dute inspirazio iturri. Batzuetan, rap musikatik urruntzen dira ere.

RAP

♥♥♥
*Damso*
*Roméo Elvis*

15€ / 12€ (adh-kide) en loc-aurretik
18€ / 15€ (adh-kide) sur place-bertan
Tarif Étudiants Campulsations 5€

*gratuit urririk (adh-kide)*



©Marius Gonzales ©G.Kayacan


Cd Vinyl
Café Resto
LE MANGE DISQUE
Magasin de disques : Neuf et occasion
Platines Vinyles et accessoires
Petit déjeuner - Déjeuner - Goûter
Cave à Vin - Bières - Spiritueux
Ouvert du Lundi au Samedi - 9 h / 19 h
5 rue des Prébendes 64100 BAYONNE
(Près du cloître côté médiathèque)
Facebook mange-disque bayonne
Tél. 05 59 29 61 02 ou mangedisque@outlook.fr


Formation adulte
3h / journée / stage 5 jours
Croisières
Pays basque / Irlande / Corse
Formule Club
Trimestrielle / Annuelle
Spi en Tête
Ecole de voile
et de croisière
www.spientete.com
Port de Plaisance d'Hendaye | 06 62 82 34 74 | eric@spientete.com

# VENDREDI 28 SEPTEMBRE 21:00 IRAILAK 28 OSTIRALA

# AMENRA

## + OBSCURE SPHINX



**AMENRA**
Proche de groupes comme Neurosis ou Cult Of Luna, les Belges ont bâti en six albums un style unique de doom-métal. Une vision artistique complète, un admirable refus du moindre compromis, des disques à l'ascétisme à l'encontre de tous les codes, des lives d'une lourdeur inouïe: AMENRA s'est hissé tout en haut en étant un monde à lui tout seul. Dans leurs shows intenses, l'apocalypse et le chaos se teintent d'un romantisme noir et viscéral. De brusques moments d'apaisement et AMENRA repart de plus belle dans l'exploration des profondeurs abyssales de la souffrance pour en faire ressortir la lumière.

**OBSCURE SPHINX**
Un concentré de noirceur, de lugubre et d'errance spirite. Cette formation polonaise de post-metal/shoegaze viendra présenter «Epitaphs», son dernier album.

**+ LYDIE ARICKX x CHVE**
***Performance Live 19h30***

**AMENRA**
Neurosis eta Cult Of Luna bezalako taldeen eraginak barneratu dituzte. Belgikarrek sei disko argitaratu dituzte eta nehorrek ez bezalako doom-metala sortu dute. Ikusmolde artistiko osoa eta ildo musikal argia garatu dituzte, disko zoragarriak argitaratu dituzte eta kontzertu zinez harrigarriak eskaintzen dituzte. Apokalipsia eta kaosa erromantizismo beltzez janzten asmatzen dute. Soinu tarte lasaigarrien ondotik, AMENRAk berriz gogor ekiten dio. Sufrimenduaren sakontasun abisalak ikertzen ditu, baina, beti argia jalgiarazteko.

**OBSCURE SPHINX**
Belztasuna, iluntasuna eta antsia. Poloniatik datorren post-metal/shoegaze talde hau «Epitaphs» disko berria aurkeztera jinen da.

**+ LYDIE ARICKX x CHVE**
***Zuzeneko performantzia 19:30etan***

DOOM
METAL

©Stephan Vanfleteren

♥♥♥
*Neurosis*
*Cult Of Luna*

17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik
20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

# Exposition Erakusketa

# LYDIE ARICKX



Apparentée au courant expressionniste contemporain, **LYDIE ARICKX**, peintre et sculpteur d'origine Flamande, en est devenue au fil du temps un des chefs de file. Son oeuvre est plurielle, de la peinture à la sculpture, du monumental au miniature, sur tout support et matériaux y compris la toile émeri devenu un élément indissociable de sa peinture.

Poliki-poliki, **LYDIE ARICKX** mugimendu espresionista garaikidearen gidarietarik bat bilakatu da. Bere lana anitza da: margolaritza eta zizelkaritza, obra handiak ala ttipiak, euskarri eta ekai mota guziak (bere margolanetarik bereizezina bilakatu den esmeril-ehuna partikularki).

# LYDIE ARICKX x CHVE

## *Performance Live Performantzea*





Depuis quelques années, LYDIE ARICKX accompagne ses expositions de performances en direct et en musique «en partage avec le public» et à l'occasion de son vernissage, CHVE Colin H Van Eeckhout de Amenra se joindra à elle pour un moment unique !

CHVE utilise une vielle à roue et sa voix pour aller vers des ambiances plus intimes et vulnérables. Des longs paysages sonores, juste un homme, ses pensées, ses cicatrices et ses souvenirs, avec sa voix et son instrument.

**AMENRA**, **CHVE** et **LYDIE ARICKX** ont en commun l'impact d'une esthétique et d'une énergie primaire essentielle. Ils vont puiser dans un ventre commun, l'imaginaire collectif, la spiritualité, la vie et la mort, leurs forces respectives et la retranscrivent avec une rare puissance aux yeux et oreilles du public.

Badu zenbait urte LYDIE ARICKX-ek erakusketak zuzeneko performantzia musikatuekin eta jendearekin batera egiten dituela. Erakusketaren estreinaldiaren karietara, Amenra taldeko Colin H Van Eeckhout CHVE kantaria ere agertuko zaigu. Memento paregabea izango da!

Giro intimoak eta hauskorrak sortzeko, CHVE artistak zarrabete bat eta ahotsa baliatzen ditu. Gizon bakarti bat, haren gogoetak, zauriak, oroitzapenak, ahotsa eta musika tresna, eta, soinu paisaia luzeak.

**AMENRA**, **CHVE** eta **LYDIE ARICKX** artistek estetika eta energia primarioaren eragin azkarra partekatzen dute. Denen tripan eta buruan dena jalgiarazten dute: irudimen kolektiboa, espiritualtasuna, bizitza eta heriotza, bataren eta bestearen indarra... Eta guzti hori publikoaren begi eta belarrietara indar handiz hedatzen dute.

**Performance Vendredi 28 Septembre à 19h30**
**Exposition du Vendredi 28 Septembre au Samedi 10 Novembre 2018**

**Performantzea irailaren 28an, ostiralarekin, 19:30etan**
**Erakusketa irailak 28 ostiraletik azaroak 10 larunbatera**

**JEUDI 11 OCTOBRE 20:00 URRIAK 11 OSTEGUNA**

# DEWOLFF

## + THIS WILL DESTROY YOUR EARS + SLIFT

Présenté par **ATABAL** & **MUSIQUE D'APÉRITIF**-ek aurkezturik



### - 5 ANS MUSIQUE D'APÉRITIF -

**DEWOLFF**
DEWOLFF, monstre rock'n'roll à trois têtes en provenance du sud des Pays-Bas! Un jeune groupe excentrique et unique qui sort aujourd'hui son 6ème album «Thrust», le plus ambitieux et le plus contemporain à ce jour. C'est le son du rock'n'roll de 2018 parfaitement dosé en énergie, en authenticité à découvrir absolument en live!

**THIS WILL DESTROY YOUR EARS**
Projet noise rock, le trio, originaire d'Hossegor, s'engage pour la démocratisation des acouphènes, distillant un shoegaze acéré, relevé à la britpop et saupoudré de ce qu'il faut de punk.

**SLIFT**
SLIFT, une messe assourdissante où les 2 guitares et la batterie, en formation serrée, taillent des riffs stratosphériques à répétition.

+ Warm up & After MUSIQUE D'APÉRITIF DJ SET

### - MUSIQUE D'APÉRITIF 5 URTE -

**DEWOLFF**
DEWOLFF, Herbehereetatik datorren hiru buruko rock'n'roll munstroa da. Oroz gainetik, Dewolff aparteko taldea da, xelebrea. «Thrust» izeneko seigarren diskoa argitaratu berri du, orain arteko anbiziotsuena eta garaikideena, hain segur. 2018ko rock'n'roll soinua da, indar eta egiazkotasun neurri egokian emana eta zuzenean ikustekoa!

**THIS WILL DESTROY YOUR EARS**
Hossegoretik datorren noise rock proiektua da. Akufenoen demokratizazioaren alde ari dira. Shoegaze musika zorrotza jotzen dute, britpop eta punk doi batekin.

**SLIFT**
Elkortzeko meza bat bezala da. 2 gitarra eta bateria bat. Riff estratosferikoak behin eta berriz errepikatzen.

+ Warm up & After MUSIQUE D'APÉRITIF DJ SET

ROCK GARAGE

♥♥♥
*Kadavar*
*Triggerfinger*

10€ / 7€ (adh-kide) en loc-aurretik
13€ / 10€ (adh-kide) sur place-bertan

*gratuit urririk (adh-kide)*



*©Satellite June*

VENDREDI 19 OCTOBRE 20:00 URRIAK 19 OSTIRALA

# BPM #3: RÉMY

## + NITROPHONIE + KULS100 + ZONE LASAI

Présenté par **BASE PRODUCTIONS** & **ATABAL**-ek aurkezturik



*La soirée BPM «Le Bruit Propulse le Mouvement», rencontre entre la scène hip-hop locale et nationale, revient pour sa 3ème édition. Le rappeur RÉMY s'entoure du groupe Nitrophonie !*

### RÉMY

RÉMY se positionne sur une sorte de «rap français old school» aux textes vindicatifs. Considéré comme un rookie dans le milieu mais toujours épaulé par Mac Tyer, «Le Socrate du 93», RÉMY est pressenti par certains comme la révélation musicale de 2018. Son 1er album, «C'est Rémy» annonce un départ fracassant !!!

### NITROPHONIE

Le groupe de rap fait rapidement ses armes lors de petits concerts locaux ou de 1ères parties d'artistes émergents comme Caballero, Lomepal, Deen Burbigo... «La saison des grosses rimes» est leur 1er projet.

+ Warm up KULS100
+ After ZONE LASAI & FRIENDS

*Tokiko eta estatuko hip-hop eszenaren topagunea: «Le Bruit Propulse le Mouvement» gaualdiaren 3. edizioa hor dugu! REMY eta Nitrophonie rap kantariak bilduko ditu!*

### RÉMY

«Eskola zaharreko Frantziako rap»-aren ildotik, hitz mendekariak eta aldarrikatzaileak ditu. Hip-hoparen munduan hasiberri gisa kontsideratua da, baina, Mac Tyer edo «Socrate du 93» bere anai handiak lagundurik, Rémy 2018ko errebelazioa izanen dela uste dute askok. «C'est Rémy» lehen diskoa hasiera zalapartatsu horren frogaharria da.

### NITROPHONIE

Kontzertu ttipiak emanez eta Caballero, Lomepal, Deen Burbigo eta gehiagoren aurretik joz, lehen urratsak eman ditu.

+ Warm up KULS100
+ After ZONE LASAI & FRIENDS

RAP

©Fifou

♥♥♥
*Medine*
*Mac Tyer*

17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik
20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

SAMEDI 20 OCTOBRE 21:00 URRIAK 20 LARUNBATA

# THE INSPECTOR CLUZO

## - 10TH ANNIVERSARY LP -



**THE INSPECTOR CLUZO**

Dans le pays gascon qui a donné aux Amériques quelques-uns de ses illustres têtes brûlées, THE INSPECTOR CLUZO joue à sa façon de la musique de la campagne, de la musique des gens. De la folk-music, mais surtout pas de la musique folklorique !

Joué avec jubilation, chaque concert est une victoire pour ces deux garçons auto-baptisés Rock Farmers, Gentlemen Farmers! Batterie, guitare et voix suffisent ici à écrire une musique universelle, un blues déchiqueté.

Le nouvel album de THE INSPECTOR CLUZO, qui fête les dix ans du duo, s'appelle «We the People of the Soil». Une histoire de terre, de sillon que l'on creuse inlassablement, de plus en plus profondément.

**THE INSPECTOR CLUZO**

Amerikar ospetsu batzuk eman dituen Gaskoinan, THE INSPECTOR CLUZO taldeak bere baserrialdeko eta jendeen musika jotzen du. Musika herrikoia da. Ez da musika folklorikoa!

Rock Farmers edo Gentlemen Farmers bikotearen kontzertu bakoitza poz handiko garaipen mementoa da.

Bateria, gitarra eta ahotsarekin, musika unibertsala sortzeko nahikoa osagai badute. Gorabeheraz jositako blues beroa jotzen dute.

THE INSPECTOR CLUZO taldeak hamar urte ospatzen ditu. Bikoteak «We the People of the Soil» izeneko disko berria aurkezten du. Ildoa gero eta sakonago urratzen dute, sekula unatu gabe.

ROCK FARMERS

♥♥♥
*Seasick Steve*
*General Elektriks*

15€ / 12€ (adh-kide) en loc-aurretik
18€ / 15€ (adh-kide) sur place-bertan

DIMANCHE 21 OCTOBRE 19:00 URRIAK 21 IGANDEA

# BCUC

## + LE BAL DU SAMEDI SOIR




**BCUC**

Une claque! Voilà l'effet BCUC en live. Entre musique africaine, soul et punk rock, une intensité comme on en trouve plus. Porté par la présence du chanteur Jovi Zithulele, le zoulou n'est jamais loin, le hip hop et le rock insurgé non plus. Totalement primitive, la musique de BCUC se vit comme une arme de libération politique et spirituelle qui happe dès les premières notes pour nous perdre dans une incantation fiévreuse.

**LE BAL DU SAMEDI SOIR**

En attendant lundi, le Bal du Samedi Soir s'installe un dimanche à Atabal. Une grosse sono en bois, de la musique sur vinyles, une piste de danse, des DJs bayonnais, vous obtiendrez un Bal du Dimanche Soir !
Pour cette 1ère à Atabal, les sélecteurs du Bal mèneront la danse de A à Z ! Et pour cela il faudra être bien chaussé !!!

**BCUC**

Afrikako musikaren, soul musikaren eta punk rockaren artean, BCUCren kontzertu bat bizitasun handiko momentua izan ohi da. Zartako baten parekoa! Jovi Zithulele kantariaren karismak gidaturik, BCUC taldeak zuluen kultura eta hip-hop eta rock aldarrikatzailea uztartzen ditu. BCUCren musika arras primitiboa da. Askapen politikorako eta gogoaren askapenerako arma bat da. Lehen notatik kolpean harrapatzen gaitu eta inkantazio sukartsuan murgiltzen gaitu.

**LE BAL DU SAMEDI SOIR**

Bal du Samedi Soir igande batez gertatuko da Atabalen... Astelehena aitzin! Zurezko soinu sistema, biniloak, dantzalekua, Baionako DJak, eta hara! Bal du Samedi Soir igande arratseko dantzaldia bilakatuko da! Atabalen lehen aldiz, musika hautatzaileek Atik Zrainoko taldeak jarriko dizkizuete. Kasu, dantzatzeko zapata onak jantzi!

WORLD MUSIK

*Tshegue*
*Kokoko!*

12€ / 9€ (adh-kide) en loc-aurretik
15€ / 12€ (adh-kide) sur place-bertan

*gratuit urririk (adh-kide)*

# Stages Vacances Oporretako Ikastaldiak

**Lundi 22 au Vendredi 26 Octobre** // **Urriaren 22tik 26ra, astelehenetik ostiralera**



## ATELIER RADIO

***10 - 17 ans // 10h>12h***

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Franck Deschamps

Lors de cet atelier, qui sera réalisé dans de véritables conditions techniques d'un studio, vous pourrez vous initier à la présentation et à la découverte de la radio: animation micro, réalisation technique, montage et enregistrement d'une émission.
Une expérience participative, ludique et éducative où chaque participant repartira avec ses enregistrements audio.

## IRRATI TAILERRA

***10– 17 urte artekoak // 10:00>12:00***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Franck Deschamps-ek animaturik

Estudio bateko egiazko baldintza teknikoetan iraganen den tailer horretan, irratiaren aurkezpenean eta ezagutzan lehen irakaspenak jasoko dituzue: mikrofonoaren bitartez animazioa, errealizazio teknikoa, muntaketa eta emankizun baten grabaketa. Esperientzia parte hartzailea, ludikoa eta hezitzailea.
Parte hartzaile bakoitzak bere soinu grabaketak etxera eramaten ahalko ditu.



## ATELIER RADIO 2.0

***10 - 17 ans // 14h>16h***

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Franck Deschamps

Pour ceux qui ont suivi le premier Atelier Radio et qui souhaitent se perfectionner.
Prise de son voix et de son traitement, montage audio d'un élément radio en multipiste, réalisation technique d'une émission en direct, animation micro en direct, diffusion sur internet en streaming audio.
Une expérience participative, ludique et éducative où chaque participant repartira avec ses enregistrements audio.



## IRRATI TAILERRA 2.0

***10 – 17 urte artean // 14:00>16:00***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Franck Deschamps-ek animaturik

Lehenengo Irrati Tailerrean parte hartu zutenentzat eta ikasketan sakondu nahi dutenentzat.
Ahotsen grabaketa eta tratamendua, irratiko osagai baten audio muntaketa pista anitzeko nahasketa-mahaian, zuzeneko emankizun baten teknika errealizazioa, zuzeneko animazioa mikrofonoarekin, internet bidezko hedapena audio streaming formatuan.
Parte hartzaile bakoitzak bere soinu grabaketak etxera eramaten ahalko ditu.

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

## Lundi 22 au Vendredi 26 Octobre // Urriaren 22tik 26ra, astelehenetik ostiralera



### ÉVEIL MUSICAL

***3 - 4 ans 9h30>10h30 // 5 - 6 ans 10h30>11h30***

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Brigitte Edme-Arruartena

S'éveiller à la musique c'est aussi se découvrir des aptitudes d'écoute, d'expression vocale et instrumentale. Vos enfants s'approprient le rythme à travers leur corps, les mélodies et les sons qu'ils entendent et qu'ils produisent. Lors des stages ils pourront aussi confectionner leurs propres percussions ! Tous pourront découvrir entre autres la guitare, le ukulélé, la batterie et le clavier.

### LEHEN HURBILTZEA

***3 - 4 urte artekoak 09:30>10:30 // 5 - 6 urte artekoak 10:30>11:30***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Brigitte Edme-Arruartenak animaturik

Musikara hurbiltzea entzumen, ahozko adierazpen eta musika tresnak jotzeko gaitasunak deskubritzeko parada da. Zuen haurrek entzuten eta sortzen dituzten melodiak eta soinuak gorputzaren bidez erritmoan adieraziko dituzte. Ikastaldi denboran beren perkusioak fabrikatzen ahalko dituzte! Denek gitarra, ukulelea, bateria eta teklatuak ezagutuko dituzte.

### INITIATION MUSICALE

***7 - 9 ans // 11h30>12h30***



***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Brigitte Edme-Arruartena

Nous irons un peu plus loin en initiation avec les plus grands qui pourront commencer à jouer en mini-orchestre leur musique semi-improvisée !

### LEHEN IRAKASPENAK

***7 - 9 urte artekoak // 11:30>12:30 Asteko 50€ (40€ kideentzat)***

Brigitte Edme-Arruartenak animaturik

Handiagoekin haratago joan eta musikako lehen irakaspenak irakatsiko dizkiegu. Orkestra ttipian, beren musika erdi inprobisatua jotzen hasiko dira!

## Lundi 29 au Mercredi 31 Octobre // Urriaren 29tik 31ra, astelehenetik asteazkenera



### ATELIER DJ/MAO [MUSIQUE ASSISTÉE PAR ORDINATEUR]

***+10 ans - Adultes // 10h>11h / 11h>12h***

***30€/semaine (24€ adhérent)*** Animé par Manu Matthys

Les ateliers DJ/MAO permettent de traverser toutes les étapes de la création de morceaux à partir des composants de la musique électronique. Les participants pratiqueront percussion, mélodie et voix. Ils termineront la semaine par un enregistrement et repartiront avec leur production sur clé USB !

### DJ/OLM TAILERRA [ORDENAGAILUZ LAGUNDURIKO MUSIKA]

***+10 urte - helduak // 10:00>11:00 / 11:00>12:00***

***asteko 30€ (24€ kideentzat)*** Manu Matthys-ek animaturik

DJ/OLM tailerrean, musika elektronikoaren osagaietatik abiatuz, kantu baten sorkuntzaren urrats guztiak ikusteko aukera badago. Gazteek perkusioak, melodiak eta ahotsak landuko dituzte. Astea grabaketa batekin bururatuko dute eta beren produkzioarekin joango dira etxera.

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**

brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

## Lundi 29 au Mercredi 31 Octobre // Urriaren 29tik 31ra, astelehenetik asteazkenera



### LES JEUNES PEINTRES [ATELIER PEINTURE en MUSIQUE]

***5 - 9 ans // 09h30>10h30 / 10h30>11h30***

***30€/semaine (24€ adhérent)*** Animé par Franck Cazenave

La vocation des ateliers est d'aider chacun à renouer avec la liberté de «créer», à (re) trouver «le jeune peintre» en lui. Chaque session libère de la dépendance de modèles, à développer une autonomie positive et une expression naturelle. Franck Cazenave n'agit pas en maître mais en praticien bienveillant dédié au soutien individuel. Depuis 2010, l'artiste a accompagné plus d'un millier d'enfants.

### MARGOLARI GAZTEAK [MARGOLARITZA TAILERRA MUSIKATUA]

***5 - 9 urte // 09:30>10:30 / 10:30>11:30***

***asteko 30€ (24€ kideentzat)*** Franck Cazenave-ek animaturik

Tailerren xedea norberak duen «sortzeko» askatasuna berreskuratzea eta bere baitako «margolari gaztea» berriz piztea da. Saio bakoitza ereduetatik libratzeko eta autonomia positiboa eta adierazpide naturala garatzeko parada da. Franck Cazenave ez da maisu gisa ari, baizik eta beti laguntzeko prest den bihotz oneko margolari gisa. 2010 urteaz geroztik, mila haur baino gehiago lagundu ditu.



### ÉVEIL MUSICAL

***3 - 4 ans 9h30>10h30 // 5 - 6 ans 10h30>11h30***

***30€/semaine (24€ adhérent)*** Animé par Brigitte Edme-Arruartena

S'éveiller à la musique c'est aussi se découvrir des aptitudes d'écoute, d'expression vocale et instrumentale. Vos enfants s'approprient le rythme à travers leur corps, les mélodies et les sons qu'ils entendent et qu'ils produisent. Lors des stages ils pourront aussi confectionner leurs propres percussions ! Tous pourront découvrir entre autres la guitare, le ukulélé, la batterie et le clavier.

### LEHEN HURBILTZEA

***3 - 4 urte artekoak 09:30>10:30 // 5 - 6 urte artekoak 10:30>11:30***

***Asteko 30€ (24€ kideentzat)*** Brigitte Edme-Arruartenak animaturik

Musikara hurbiltzea entzumen, ahozko adierazpen eta musika tresnak jotzeko gaitasunak deskubritzeko parada da. Zuen haurrek entzuten eta sortzen dituzten melodiak eta soinuak gorputzaren bidez erritmoan adieraziko dituzte. Ikastaldi denboran beren perkusioak fabrikatzen ahalko dituzte! Denek gitarra, ukulelea, bateria eta teklatuak ezagutuko dituzte.

### INITIATION MUSICALE

***7 - 9 ans // 11h30>12h30***

***30€/semaine (24€ adhérent)*** Animé par Brigitte Edme-Arruartena



Nous irons un peu plus loin en initiation avec les plus grands qui pourront commencer à jouer en mini-orchestre leur musique semi-improvisée !

### LEHEN IRAKASPENAK

***7 - 9 urte artekoak // 11:30>12:30***

***Asteko 30€ (24€ kideentzat)*** Brigitte Edme-Arruartenak animaturik

Handiagoekin haratago joan eta musikako lehen irakaspenak irakatsiko dizkiegu. Orkestra ttipian, beren musika erdi inprobisatua jotzen hasiko dira!

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

SAMEDI 27 OCTOBRE 21:00 URRIAK 27 LARUNBATA

# MACEO PARKER




**MACEO PARKER**
Parce que le temps passe, que les styles musicaux changent, et que la relève se fait rare, MACEO PARKER compte parmi les derniers rares artistes encore inventifs et actifs de l'authentique courant Funk des années 70.
Avec plus de 200 concerts par an, il parcourt le monde entier inlassablement, accompagné de musiciens aux références funky sans équivoque, et permet ainsi à un maximum de spectateurs de vivre avec eux sa musique. MACEO PARKER a su conquérir les oreilles et le coeur de plusieurs générations, et toujours plus nombreux, les fans de l'époque se mélangent aux fans d'aujourd'hui.
Tous se réunissent pour profiter de ces moments privilégiés offerts par le dernier ambassadeur du Funk.

**MACEO PARKER**
Denbora aurrera doa, musika estiloak kanbiatzen dira eta ordezkari guti agertzen dira. 1970eko hamarkadako egiazko funk musikan, oraindik aktibo eta asmamen handikoa den artista bakanetarik bat da MACEO PARKER.
Urtean 200 kontzertu baino gehiago eskaintzen ditu. Mundua kurritzen du, akitu gabe. Funky erreferentzia nabarmenak dituzten musikariekin ibiltzen da. Ahalik eta jende gehienari bere musika bizitzeko aukera ematen dio. MACEO PARKERek belaunaldi desberdinen belarriak eta bihotzak irabazi ditu. Garaiko lehen zaleak gaur egungoekin nahasten dira, gero eta publiko zabalagoa osatuz.
Funkaren azken enbaxadoreak eskaini memento bereziaz gozatzeko parada da.

SOUL
FUNK

♥♥♥
*Marcus Miller*
*Fred Wesley*

26€ / 23€ (adh-kide) en loc-aurretik
29€ / 26€ (adh-kide) sur place-bertan

*©Boris Breuer*

## DIMANCHE 28 OCTOBRE 20:00 URRIAK 28 IGANDEA

# SUUNS

## + VIVE LA VOID




### SUUNS

Originaires de Montréal, SUUNS groupe incontournable de la scène avant-gardiste de l'indie contemporain est de retour en 2018 avec l'album «Felt». Calmement mais magnifiquement, les 4 canadiens redonnent un sens puissant et moderne à l'appellation cold wave, et nous rassurent sur leur capacité à toujours évoluer vers du meilleur et à produire un incroyable numéro d'équilibriste sur ce mince fil qui sépare la pop de la musique expérimentale.

### VIVE LA VOID

VIVE LA VOID, nouveau projet solo de Sanae Yamada, co-fondateur et clavier de Moon Duo nous présente son 1er album éponyme. Le résultat est un mélange onduleux de tourbillons éthérés, vibrants, crépitants, électriques, stimulés par les mélodies vocales minimes mais captivante de Yamada et des paroles saisissantes.

### SUUNS

SUUNS Montrealetik dator. Musika independente garaikidearen eszenan talde saihetsezina bilakatu da. 2018an, «Felt» diskoarekin itzuli da. Lau kanadarrek, lasaiki eta zoragarriki, cold wave izendapenari zentzu indartsua eta modernoa ematen diote. Beti hobera jotzeko eta pop musikaren eta musika esperimentalaren arteko hari finaren gainean ekilibrista jokoan aritzeko duten gaitasunari buruz lasaitzen gaituzte.

### VIVE LA VOID

Moon Duo taldearen sortzailea eta teklatu jotzailea den Sanae Yamadaren bakarkako proiektua da. «VIVE LA VOID» izeneko lehen diskoa aurkezten digu. Musika, zirtaka ari den zirimola zerutar eta elektriko bat da. Honen gainetik, Yamadaren ahots melodia xumeak baina liluragarriak eta hitz sarkorrak entzun daitezke.

POP
NOISE

♥♥♥
*Liars*
*Beak*

17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik
20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

# JEUDI 01 NOVEMBRE 20:00 AZAROAK 01 OSTEGUNA

# JEANNE ADDED

## + MELLANOISESCAPE



**JEANNE ADDED**
2015, JEANNE ADDED sort son premier album au titre prémonitoire «Be sensationnal».
Avec le public, la presse, c'est le coup de foudre. JEANNE ADDED éblouit, sidère.
Elle revient aujourd'hui avec un second album dont le 1er titre dévoilé «Mutate» est une flèche qui perce le cœur. Toujours magistrale, la voix de JEANNE ADDED puise ici dans des nuances ondulatoires qui explorent avec une émotion épidermique les promesses de la vie.

**MELLANOISESCAPE**
Olivier Mellano quitte un temps ses projets pharaoniques pour retrouver l'énergie brute, les torrents électriques et les cascades soniques. Désormais en trio avec les musiciennes Valentina Magaletti à la batterie et Miët à la basse, il creuse son sillon artistique flirtant avec Shellac, Battles, et Blonde Redhead.

**JEANNE ADDED**
2015ean, JEANNE ADDED artistak «Be sensationnal» izeneko lehen disko argitaratu zuen.
Publikoa eta prentsa harritu eta xoratu zituen. Sekulako arrakasta ukan zuen.
2018ko maiatzean, hain igurikatua den bigarren diskoko «Mutate» lehen kantua kaleratu zuen. JEANNE ADDED-en ahotsa bikaina da. Bihotza zulatzen duen gezi bat bezala da. Ahotsaren ñabarduretan larruazaleko emozio kutsakorrak bilatzen ditu. Bizitzaren promesak eta zorabioak aipatzen ditu.

**MELLANOISESCAPE**
Proiektu erraldoiak instant batez bazter utzi, eta, Olivier Mellano artista, berriz, indar gordineko soinu uhar elektrikoetara itzultzen da. Valentina Magaletti bateria jotzailearekin eta Miët baxu jotzailearekin osatzen duen hirukoteak bere ildo artistikoa urratzen du; Shellac, Battles, Pinback eta Blonde Redhead taldeen artean, hor nonbait.

ELEKTRO POP

©Julien Mignot

♥♥♥
*Camille*
*Juliette Armanet*

22€ / 19€ (adh-kide) en loc-aurretik
25€ / 22€ (adh-kide) sur place-bertan

# JEUDI 08 NOVEMBRE 20:30 AZAROAK 08 OSTEGUNA

# ABORTED + CRYPTOPSY

## + BENIGHTED + CYTOTOXIN



**ABORTED**
20 ans d'existence pour le groupe belge ABORTED, mené de main de fer par son vocaliste Sven de Caluwé et régnant sur le Brutal Death grâce à leur discographie. En 2012, Sven revient avec un nouveau line-up, retournant ainsi à ses fondamentaux, un brutal death ultra violent.
Le groupe repart aujourd'hui sur les routes avec leur tout dernier album «TerrorVision», toujours aussi brutal death ultra-technique!

**CRYPTOPSY**
Cette formation originaire de Montréal a vu le jour en 1992 alors qu'elle s'appelait Nécrosis. Il aura suffi d'une démo «Ungentle Exhumation» suivie de l'album «Blasphemy Made Flesh» pour que le groupe acquiert une solide réputation sur la scène internationale, réinventant le style que l'on pourrait qualifier d'extrême music.

**+ BENIGHTED**
**+ CYTOTOXIN**

**ABORTED**
Badu hogei urte baino gehiago ABORTED existitzen dela. Sven de Caluwé kantaria buru duen talde hau, diskografia ezin hobeari esker, brutal death metal eszenako talde nagusia da. 2012an, Sven taldekide berriekin jotzen hasi zen eta jatorrizko brutal death arras bortitzarekin betiko zaleak berreskuratu zituen. Egun, taldea berriz bidean da. «TerrorVision» azken diskoa aurkezten ari da. Brutal death arras teknikoa, usaian bezala!!!

**CRYPTOPSY**
Montréal hiriko taldea da. 1992 urtean sortu zen. Hastapenean, Nécrosis izena zuen. «Ungentle Exhumation» maketa eta «Blasphemy Made Flesh» diskoa argitaratu, eta, berehala, nazioarteko eszenan fama ona ukan zuen. Diskotik diskora muturreko musika berriz asmatzen ibili da.

**+ BENIGHTED**
**+ CYTOTOXIN**

METAL

♥♥♥
*Dying Foetus*
*Suffocation*

17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik
20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

VENDREDI 09 NOVEMBRE 21:00 AZAROAK 09 OSTIRALA

# CARPENTER BRUT

## + GosT



### CARPENTER BRUT

C'est l'histoire de CARPENTR BRUT, artiste synthwave, darksynth, peu importe le flacon après tout. Auteur de «Trilogy» en 2015, il est apparu sur les bandes originales de Hotline Miami 2 et The Crew, et aujourd'hui signe «Leather Teeth». Un album court. Sec. Un délire comme sur les bons vieux albums de métal.

### GosT

Artiste Synthwave, GosT se détache rapidement de ses frères de platines par des sonorités plus proches des dancefloors de Lucifer que des nuits des mégalopoles Américaines. Porté aux nus en 2015 avec son 1er méfait «Behemoth», l'homme derrière le masque poursuit dans sa brèche et sort un 3ème opus «Possessor» un aller simple pour les enfers, sans oublier un côté «dansant» omniprésent. Une véritable pépite !

### CARPENTER BRUT

CARPENTER BRUT artistaren istorioa da. Synthwave edo darksynth musika jotzen du, edo holako zerbait. 2015ean, «Trilogy» diskoa argitaratu zuen. Hotline Miami 2 eta The Crew bideo jokoen soinu bandetan entzun zitekeen. «Leather Teeth» diskoa kaleratu du orain. Lan laburra eta idorra da. Metal musikako disko zahar bikainen gisako erokeria bat da.

### GosT

Synthwave musika jotzen duen artista da GosT. Estatu Batuetako megalopolietako gauetatik baino Luziferrengandik hurbilago diren soinuei esker, beste DJetarik laster bereizi da. Kritikariek 2015ean «Behemoth» izeneko lehen diskoa txalotu zuten. Maskaren gibeleko artistak muga guziak gainditzen ditu. «Possessor» izeneko hirugarren lanarekin dator orain. Infernurako bidaia da, baina, musikaren alde dantzagarria beti entzun daiteke. Sekulako harribitxia!

ELEKTRO
DARK

♥♥♥
*John Carpenter*
*Justice*

22€ / 19€ (adh-kide) en loc-aurretik
25€ / 22€ (adh-kide) sur place-bertan

**SAMEDI 10 NOVEMBRE 21:00 AZAROAK 10 LARUNBATA**

# DUB SOUL SOUND SYSTEM MEETS EQUAL BROTHERS

Présenté par **EQUAL BROTHERS**-ek aurkezturik






